

ETXEBIZITZA ETA/EDO BAINUGELA EGOKITZEA, IRISGARRI EGITEKO

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Adingabea -18 desgaitasunarekin > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomia izateko

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa](#).

Norentzat

Desgaitasunen bat duten edo **mendekotasun-egoeran** dauden pertsonak.

Kostua

Koordainketa duen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta egokitzapen-motaren arabera.

Baldintzak

Ezgaitasuna edo mendekotasuna.

Errola (**12 hilabete**).

Zertan datza?

Ohiko etxebizitzako oztopoak ezabatzeko aukera ematen duten egokitzapenei buruzko orientazioa eskaintzen da, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen autonomia pertsonala hobetzeko helburuarekin ([2.7.2.2 fitxa](#)). Obren diseinua eta gauzatzea finantzatzen da, eta, zerbitzua ematea ezinezkoa bada, diru laguntzak ematen dira.

Norentzat?

- % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta egokitzapen motaren arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Desgaitasuna =>%33 eta/edo **mendekotasuna** onartua izatea.

Adin mugarik gabe.

.

Aurreko 12 hilabeteetan **EAEn erroldatuta** egon izana.

Egokitzapen zerbitzuan lehenago sartu ez izana, salbu mugikortasun zailtasunak larriagotu badira eta beste egokitzapen batzuk egin behar badira.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Laguntza-produktuen zerbitzua Araban](#)
- [Laguntza-produktuen zerbitzua Bizkaian](#)
- [Laguntza-produktuen zerbitzua Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)